

AGENDA 21eko FOROAREN AKTA

Legazpiko Agenda 21eko F.O.R.O.A
Martxoak 21
Iñaki Garúa EVE

CONSEJOS PRÁCTICOS

- CONVERTIR en al mínimo demanda energética para...
- VENTILACIÓN: 10' 60"
- APROVECHAR LA LUZ NATURAL: el aire para secar ropa
- TECNOLOGÍA LED en casa: detectores presencia, requieren pequeña inversión
- CALEFACCIÓN: para no pasar frío Pensiones
- Electrodomésticos A* "aunque cueste más €, en pocos años se recupera"
- PERSONAS: INVERNO CERRAR UCHOS
- agua: el oro blanco
- Modo Ahorro (ordenador, calefacción, lavadora)

2. Transición energética en EUSKADI

2 PASOS → Necesidad de energía → energías renovables electrificadas

BIOMASA, EÓLICA, ALAS, GEOTERMIA, FUTUROLOGÍA

Y mientras tanto... GAS natural

vehículo eléctrico

- avanzando en autonomía real ≈ 350 km
- PUNTOS DE RECARGA 30 PUNTOS y en casa por la noche
- MEJORA ALZA
- coste de mantenimiento + ahorro combustible
- Hoy en día tecnología más cara ≈ 10000€
- EN LA FACTURA DE LA LUZ Lo importante es HACERLO TRANSITO → EUSKADI
- EN 2050 0 emisiones
- AHORRO 10%-15% en nuestra mano

HIZKETALDI IREKIA: zer jakin behar dugu trantsizio energetikoari buruz?

2019ko martxoaren 21ean, ostegunean, 18:30etik 20:00etara.

Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoan

Udaberrian sartzen garen egun honetan, Agenda 21eko Foroak trantsizio energetikoari buruz hitz egin nahi izan du eta honetaz hausnartu du: legazpiarron eguneroko ohitura egokiak, trantsizio hori egokia izaten lagunduko dutenak.

Horrela bat egiten dugu klima-aldaketaren aurka borrokatzea defendatzen duen munduko mugimenduekin; eta era berean, bat egiten dugu martxoaren 6tik 8ra Donostian egin zen "Change the change" klima-aldaketari buruzko nazioarteko konferentzian eragile desberdinek egin zuten hausnarketekin.

Agiri honetan lansaioaren laburpena jasotzen da. Hona hemen eguneko aztergaiak:

EDUKIEN ESKEMA:

1. Parte hartzaileak
2. Hasierako oharra
3. Trantsizio energetikoa: Informazio baliagarria eta aholku praktikoak:
 - Energiaren kontsumo arduratsua egiteko ohiturei buruz
 - Euskadin energia berriztagarrien aprobetxamenduari buruz
 - Ibilgailu elektrikoari buruz
4. Eskerrak ematea eta amaiera

Gaurko saioa bideoan jaso da, datozen egunetan Urola Telebistaren bidez hemen azaldutako aholkuak legazpiar guztiek ikusteko aukera izan dezaten.



Bideoa telebistan emateak hizketaldiaren oihartzuna zabaltzea ahalbidetuko du. Honako loturan ikus daiteke bideoa:

https://www.youtube.com/watch?v=inyC_Xw7Oew&feature=youtu.be

1. PARTE HARTZAILEAK

17 pertsonak hartu dute parte gaurko saioan - 9 emakume eta 8 gizon-. Deialdia bide desberdinak erabiliz egin da: ohiko deialdia egiteaz gain, sare sozialak erabili dira deia egiteko eta deialdi berezia egin da etxeko postontzietan. Zehazki hona hemen gaurko lantaldea osatu duten pertsonak:

HERRITARRAK:	Manuel Fernandez (Nagusilan) – Iñaki Olaizola – Mitx Markotegi – Arantzazu Montero (AMPA Domingo Agirre) – Nieves Gonzalez – Mila Juaristi – Juan Pedro Agirre – Pilar Makibar – Juan Karlos Agirre – Monica Monteagudo – Jose Luis eta Alicia (Urola Telebista).
UDAL ARDURADUN POLITIKO ETA TEKNIKOAK:	Alberto Bezunartea (zinegotzia) - Alonso Frances (udal arkitekto teknikoa) - Inma Hernandez (industria, merkataritza, turismo eta ingurumen teknikaria).
KANPOKO LAGUNTZAILEAK:	Iñaki Garcia (EVE, Energiaren Euskal Erakundea), eta Iciar Montejo eta Zorione Aierbe (Prometea, dinamizazio-lanetan).



Eskerrik asko guztioi! Oso interesgarria izan da Iñaki Garcaren jarraibideak eta aholkuak entzutea; eta interesgarria izan da gure ohitura energetikoei buruzko iritziak eta ikuspegiak partekatzea.

2. HASIERAKO OHARRAK

Inma Hernandez, udaleko industria, merkataritza, turismo eta ingurumen teknikariak, bi ohar eman ditu:

1_ Baserriko kulturari buruz horma-irudi bat egingo da eta 3 artisten laguntzarekin horretarako prest dauden legazpiarren parte hartzea jaso nahi da

Interesdunek martxoaren 28ra arte eman dezakete izena udal web orrian edo zuzenean Inmarekin harremanetan jarrita.

<http://www.legazpi.eus/es/component/k2/item/4394-buscamos-personas-voluntarias-para-pintar-un-mural>

2_ Aste Santuaren aurretik bigarren eskuko bizikleten eguna ospatuko da.

Laster, horren gaineko informazio zabalagoa emango da.

3. TRANTSIZIO ENERGETIKOA: INFORMAZIO BALIAGARRIA ETA AHOLKU PRAKTIKOAK

Iñaki Garcia, Energiaren Euskal Erakundeko teknikaria, izan da gaurko gonbidatua. Berak eskaini dio taldeari gure egunerokoan energiaren kontsumo arduratsua egiteko informazio baliagarria eta, era berean, praktikan jar ditzakegun aholku praktikoak eman ditu.

Iñaki Garciari hitza eman aurretik, Legazpiko Ingurugelako Edurne Huesak "Klima-aldaketa dela eta, gazteen mobilizazioen alde: ezin dugu haien etorkizuna lapurtzen jarraitu" izeneko agiriaren laburpen bat irakurri du. Estatuko unibertsitate desberdinetako irakasle eta ikertzaileek sinatu dute aipatu agiria.

"Desde los centros de investigación, estamos dando respuesta a lo que reclaman los científicos del panel de Cambio Climático de la ONU en el informe que se debía haber aprobado en la Cumbre Mundial del Clima de 2018, en Katowice (Polonia) y que encontró la oposición de los países liderados por Trump:



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte-hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Contamos con los recursos y el tiempo suficiente para evitar que el calentamiento global supere 1,5°C, pero se necesita un esfuerzo sin precedentes. Si no recortamos tajantemente las emisiones industriales y de transporte, la temperatura global ascenderá a 1,5°C en algún momento entre 2030 y 2052. Se necesitarían cambios de gran alcance y sin precedentes en cuestión de energía, industria, transporte, agricultura, ciudades y edificios. Llegar a reducir alrededor de un 45% las emisiones globales de CO₂ de origen humano en 2030, respecto a los niveles de 2010, y lograr el cero neto en 2050.

Nuestra juventud ve truncado su futuro por falta de empleo, precariedad laboral y precio inasequible de la vivienda. Son graves problemas que dieron lugar al movimiento conocido como Juventud Sin Futuro. Nuestros hijos e hijas son migrantes en busca de trabajo y proyecto vital, porque en nuestra tierra las políticas de los adultos gobernantes han preferido sacrificar su futuro para alargar las oportunidades de ganancia de una minoría. Ahora empiezan a darse cuenta de que les estamos robando algo más importante y difícil de afrontar. Su generación no tendrá oportunidad de contener el Cambio Climático dentro de unos límites no catastróficos: es tarea a resolver ahora o nunca.

Como miembros de la comunidad científica y educativa, desde nuestro compromiso social por la justicia social y climática, apoyamos el movimiento emprendido por la gente joven y les decimos que nos tienen a su lado. Son nuestra esperanza”.

i. Energiaren kontsumo arduratsurako ohiturak

Iñaki Garcia gure etxeetatik hasi da bere azalpena¹.

- Haxe da helburua: energiaren kontsumoa murriztea ekarriko dizkiguten ohiturak aldatzea. Hau da, ahalik eta energia gutxien erabilia gure erosotasun-maila eustea eta dirua aurrezteko gainera.

Eta energiaren kontsumoa igorpenekin erabat lotuta dagoenez, gutxiago kontsumitzeak igorpenak gutxitzea ekarriko du.

- ¿Zer egin dezakegu kontsumoa murrizteko? Neurri desberdinak har ditzakegu; horietako batzuk ez dute kosturik eta beste batzuk bai –adibidez, isolatzeko neurriak hartzea edo tresna efizienteak erostea–.

AHOLKU PRAKTIKOAK:

Argizatzea	<ul style="list-style-type: none"> – Argi naturala aprobetxatu. – Behar den potentzia elektrikoa kontratatu. – Argiak sektorizatu. – Presentzia-detektagailuak eta/edo intentsitate-erregulagailuak jarri. – Lanpara efizienteak eta kontsumo txikikoak erabili.
Berogailua	<ul style="list-style-type: none"> – Ez ibili etengabe piztu eta itzaltzen. – Balbula termostatikoak jarri. – 10 minutu nahikoak dira etxea aireberritzeko. – Pertsianak erabili hotzetik isolatzeko. – Aire infiltrazioak saihestu, zirrikituak tapatuz. – Kristal bikoitzeko eta ATR leihoak jarri. – Termostatoak edo kronotermostatoak erabili, temperatura egokia finkatuz (20-21°C). – Efizientzia energetiko handiko galdarak jarri eta aldi behingo mantentze-lana egin.

¹ Atal honi buruz gehiago jakin nahi duenak, Iñakiren aurkezpen osoa ikus dezake: http://www.legazpi.eus/files/Agenda21/EVE-Habitos%20energeticos/Habitos_Consumo_Responsable_Legazpi_21032019.pdf; eta Energiaren Euskal Erakundeak argitaratutako "Energia etxeetan" izeneko eskuliburua kontsulta dezake: <https://www.eve.eus/Conoce-la-Energia/La-energia-en-Euskadi/Publicaciones/Eficiencia-Energetica/La-energia-en-el-hogar>

AHOLKU PRAKTIKOAK:

Etxeko ur beroa	<ul style="list-style-type: none">– Bainuaren ordeztutxa bat hartu.– Uraren tenperatura egokitu: 30 eta 35 °C artean.– Ur beroa beharrezkoa denean bakarrik erabili.– Kanila termostatikoak eta kontsumo txikiko buruak jarri dutxetan eta gehien erabiltzen diren kaniletan.– Ur ihesak eta jarioak saihestu.
Sukaldea eta labea	<ul style="list-style-type: none">– Plakaren tamaina bereko edo handiagoko ontziak erabili; estalkiak erabili lapikoak eta eltzeak estaltzeko.– Hondar-beroa aprobetxatu.– Garbi mantendu sukaldeko plaka edo suak eta labea.– Ahal den guztian mikrouhin labea erabili janariak berotzeko eta prestatzeko.– Labea erabiltzean: ez ireki atea alferrik, ondo aukeratu tenperatura eta programa, zeramikazko eta kristalezko ontziak erabili, ondo garbitu eta egoera onean mantendu eta hondar-beroa aprobetxatu.
Etxetresna elektrikoak	<ul style="list-style-type: none">– Efizientzia energetiko handiko tresnak aukeratu (goi-mailako A klasea).– Hozkailu-izozkailua: no frost modeloak aukeratu, beharrezkoa denean bakarrik desizoztu, tenperatura egokitu fabrikatzailearen aholkuak jarraituz, ez sartu janari beroak, ondo itxi dela ziurtatu eta mantentze-lan egokia egin.– Garbigailua: erabat beteta dagoenean jarri martxan, mantentze-lan egokia egin, hotzeko programak eta programa ekologikoak erabili.– Lehorgailua: ahal dela ez erabili.– Ontzi-garbigailua: erabat beteta dagoenean jarri martxan, programa ekologikoak erabili, aldi behin filtroak garbitu.– Lixagailua: baperezko lixagailuak erabili, erabilera optimizatu eta hondar-beroa aprobetxatu.
Etxetresna elektriko txikiak	<ul style="list-style-type: none">– Energia aurrezteko sistemak dituzten tresnak erosi.– Beharrezkoa denean bakarrik erabili eta erabat itzali –stand by saihestuz-.

Iñaki Garciak amaitzeko adierazi duenez, "ohitura on horiekin % 10-15era arte aurreztu daiteke faktura elektrikoan. Eta hori inportantea bada ere, erronka ohitura horiek denok hartzea da, Euskadi mailan horren eragina handiagoa izan dadin".

ii. Energia berriztagarrien aprobetxamendua Euskadin

Puntu honetan, Iñaki Garciak Euskadiko egoera energetikoaren gakoak azaldu dizkigu eta Euskadiko 2030 Energia Estrategiaren eta Energia Berriztagarrien 2017-2020 epealdirako Estrategiaren² puntu garrantzitsuenak adierazi dizkigu.

- **Euskadiko egoera energetikoa: zenbait datu.**
 - 2017an hauxe izan zen Euskadiko energiaren kontsumoa: 5,3 milioi tep (tona petrolio baliokide).
 - Urte berean hauxe izan zen energia berriztagarrien aprobetxamendua: 536.560 tep (tona petrolio baliokide).
- **Euskal politika energetikoaren ikuspegi estrategikoa:**
 - Ekonomia iraunkorra lortzea bilatzen da energia berriztagarriak erabiliz eta efizientzia energetikoaren eta garapen iraunkorraren bidez.
 - Energiaren kultura berria sustatzen du: energia berriztagarrietan erabat oinarritutako elektrifikazioa bilatzen da, trantsizioko energia gisa gas naturala erabiliz, energia digitalizatuz eta kontsumitzailea sistema energetikoaren erdian kokatuz.
 - Helburu kuantitatiboen artean hauxe da bilatzen dena:
 - 2030ean, energiaren kontsumoan % 17 aurreztea.
 - Berriztagarrien kuota azken kontsumoan: % 21.
- **Energia berriztagarrien Estrategiari dagokionez, hauexek dira erronka handienak:** biomasa eta haize-energia garatzea, geotrukearekin edo eguzki-energiarekin batera.

Azalpenak hainbat iritzi eragin ditu parte hartzaileen artean. Adibidez:




- Trantsizioko energia gisa gas naturalaren aldeko apustua egiteari dagokionez, zer energia mendekotasuna sortuko digu herrialde gisa?
- Benetan al dago energia berriztagarrien aldeko apustua? Gas naturala baliabide ez-berriztagarria da eta eragin handikoa erauzketa-lekuetan, garraioan eta azken kontsumoan, gas kutsakorrak aireratzen direlako.

iii. Ibilgailu elektrikoa

Azkenik, ibilgailu elektrikoaz hitz egin dugu eta azken urteotan ibilgailu elektrikoaren erosketa eta erabilera zergatik bultzatzen ari den horrenbeste jakin nahi izan dugu. Bestetik, ibilgailu horien abantaila nagusiak² ezagutu nahi izan ditugu.

- Zergatik eta zertarako ari da horrenbeste sustatzen ibilgailu elektrikoa?
Hauxe da bilatzen dena:
 - Petrolioaren dibertsifikazioa, erregai alternatiboak erabiliko dituzten ibilgailuak erabiliz.
 - Ibilgailu tradizionalei eragozten zaien airearen kutsadura eta kutsadura akustikoa murriztea.
- “ibilgailu % 0 elektrikoa – ibilgailu % 100 elektrikoa” lerroan aukera desberdinak daude: mota desberdinetako ibilgailu hibridoak daude, ibilgailu elektrikora iritsi arte; bakoitzak bere ezaugarri espezifikoak ditu.
- Gaur egun, abantailak eta erronkak ditu ibilgailu elektrikoak.
 - Abantailak: erregaia aurrezte; “in-situ” ez du airea kutsatzen eta ez du kutsadura akustikoa sortzen; energia etekin handiagoa eta mantentze-kostu gutxiago.
 - Erronkak: hasierako inbertsioa handiegia da oraindik; autonomia mugatua du; ibilgailu mota horiek ez dira ondo ezagutzen eta konfiantza falta bat dago.
 - Gainera, egunero erabili ahal izateko ezinbestekoa da kargatzeko guneak egokitzea. Gaur egun Euskadin 80 gune baino gehiago daude.
- Azken urteotan asko eboluzionatu du **ibilgailu elektrikoaren** merkatuak eta gaur egun handia da eskaintza. Sektore publiko eta pribatua ibilgailu elektrikoaren aldeko apustua egiten ari da; udal askok eta beste erakunde batzuk ibilgailu elektrikoak dituzte. Legazpiko Udalak adibidez.

Horren ildotik, parte hartu duten pertsonak partekatu dituzten iritziak bi kontu hauetan zentratu dira:

- 
- Ibilgailu elektrikoa gainditu eta mugitzeko modu ez motorizatuen erabilera sustatu beharra; eta ibilgailu elektrikoak erabili beharra egonez gero, garraio publiko kolektiboa bultzatu beharra.
 - Kontua ez da orain gure ibilgailu guztiak kentzea eta ibilgailu elektrikoa ekartzea; horrek ingurumen-inpaktu negatiboa izango luke.

4. ESKERRAK EMATEA ETA AMAIERA

Iñakik bere azalpenaren amaieran azpimarratu duenaren arabera, “zentzu komuna bukatzen denean xahutzea hasten da”, eta beraz, gure eskuetan -gu guztion eskuetan– dago trantsizio energetiko egokia egiten laguntzea.

Hausnarketa horiekin bukatu dugu gaurko hizketaldia eta bereziki eskertu dugu Iñakiren presentzia eta ekarpena, baita taldearen parte hartzea ere.

Hasiera hasieratik Legazpiko Agenda 21eko Foroa iraunkortasunarekin zerikusia duten gaiei buruz hitz egiteko eta ikasteko espazioa izan da. Gaur ibilbide horretan urrats berri bat eman dugula baieztatu dezakegu.

ATSEGINA IZAN DA. ESKERRIK ASKO GUZTIO!!